



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 7/2021 ebazpena

Recurso 9/2020 errekurtsoa

Kontratazio arloko errekurtsu berezia, AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE SOZIOKULTURALEN ELKARTEAK Azpeitiko «Osamen» buru nahasmendu larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroaren (CRPS) kontratuaren pleguen aurka jarria. Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian azaltzen diren kideak bertan direla, aho batez erabaki hau hartu du.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS) contra los pliegos del contrato del servicio de Centro de Rehabilitación Psicosocial (CRPS) para personas con trastorno mental severo “Osamen” de Azpeitia, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Auzitegi honetako erregistroan 2020ko abenduaren 14an aurkeztutako idazkiaren bidez, AGISASek kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako kontratua arautzen duten pleguen aurka.

BIGARRENA.- Hurrengo egunean, Auzitegiak errekurtsua igorri zion Gizarte Politiketako Departamentuari, eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL), Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zizkion; eskaera hori berriro egin zuen 2021eko urtarrilaren 18an.

HIRUGARRENA.- Kontratazio espedientea eta txostena martxoaren 10ean sartu ziren Epaitegiaren erregistroan.

LAUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 14 de diciembre de 2020, AGISAS interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos que rigen el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- Al día siguiente el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe; solicitud que fue reiterada el 18 de enero de 2021.

TERCERO.- El expediente de contratación y el informe tuvieron entrada en el registro del Tribunal el día 10 de marzo.

CUARTO.- En cumplimiento del artículo 56.3



betetze aldera, egun horretan bertan errekurtsoaren berri eman zitzaion proposamena aurkeztu zuten bi lizitatzailerei, hots, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS SA enpresari eta QUAVITAE SERVICIOS ASISTENCIALES SARI, bost egun balioduneko epean alegazioak egin zitzaion; eta ez zuten alegaziorik aurkeztu.

LCSP, en esa misma fecha se dio traslado del recurso a las dos licitadoras que habían presentado proposición, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A. y QUAVITAE SERVICIOS ASISTENCIALES, S.A., para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones, sin que hayan presentado ninguna.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENENA.- Errekurtso berezi hau aurkezten da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 1.056.172 euro da

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita SPKLren 44.2.a) artikuluan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikulua emandakoa.

BIGARRENA.- Errekurtsogilea errekurtsoa jartzeko legitimatuta dago, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 48. artikuluan, eta 814/2015 Errege Dekretuak, irailaren 11koak, kontratuen alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezien Erregelamendua onartzekoak, 24.1 artikuluan, aurkaratzen duen agirien kontratuaren xedarekin zerikusia duten interesak ordezkatzeko dituen elkarte delako, eta bertako kideen interes kolektiboak defenditzen dituelako.

HIRUGARRENA.- SPKLren 50.1.b) artikuluan aurreikusitako epearen barruan aurkeztu da errekurtsoa.

Gaiaren funtsa

LAUGARRENA.- Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatu titularrak

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP cuyo valor estimado asciende a 1.056.172 euros.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el artículo 44.2.a) LCSP y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y en el artículo 24.1 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual, aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, puesto que se trata de una asociación representativa de intereses relacionados con el objeto del contrato cuyos pliegos impugna, y actúa en defensa de los intereses colectivos de sus asociados.

TERCERO.- El recurso ha sido interpuesto dentro del plazo previsto en el artículo 50.1.b) LCSP.

Fondo del asunto

CUARTO.- Mediante acuerdo adoptado el 10 de noviembre de 2020 a propuesta de la diputada



proposatuta, 2020ko azaroaren 10ean hartutako erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak Azpeitiko "Osamen" buru nahasmendu larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroaren kontratazio espedientea onartu zuen.

Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, I. eranskinaren 2.2.1 fitxan definitzen duen bezala, eta kontratuaren preskripzio teknikoan agiriaren (PTA) II. atalean jasotzen den bezala, buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonentzako eguneko zerbitzuak edo zentroak izaera soziosanitarioko tresnak dira, zeinak bideratuta baitaude, diziplina anitzeko talde profesional batek garatutako jardueren multzo antolatu eta koordinatu baten bidez, ahal den neurrian errehabilitazio-arreta integrala, garapen pertsonala, soziala, autonomia eta integrazioa erraztera.

Zerbitzu honek, aldi baterako edo modu iraunkorrean, mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta indibidualizatua eta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntzeko, prebentzioko, gaikuntzako eta asistentziako prestazioen bitartez. Prestazio horiek gaitzera eta gaitasunak garatzera bideratuta daude autonomia pertsonala lortzeko eta komunitate ingurunean parte hartzeko.

AGISASek PTAREN alderdi jakin batzuk aurkaratu ditu, eta horiek baliogabetzeko eskatu du. Gizarte Politiketako Departamentuak errekurtsoa ezestea eskatu du, eta aurkeztutako bi lizitazioak ez dute alegaziorik egin.

BOSGARRENA.- Errekurtsoaren lehenengo asmoa langileen prestakuntzari buruzko PTAREN XI. atalaren deuseztasuna deklaratzeko da, eta osasun mentalaren arloan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea, 2009ko uztailaren 17ko

foral titular del Departamento de Políticas Sociales, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación del servicio de Centro de Rehabilitación Psicosocial (CRPS) para personas con trastorno mental severo "Osamen" de Azpeitia.

Tal como se definen en la ficha 2.2.1 del anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y así se recoge en el apartado II del pliego de prescripciones técnicas del contrato (PPT), los servicios o centros de día para personas con enfermedad mental crónica son dispositivos de naturaleza sociosanitaria que, mediante un conjunto organizado y coordinado de actuaciones desarrolladas desde un equipo profesional multidisciplinar, les proporcionan una atención rehabilitadora integral orientada, en todo lo posible, a facilitar su desarrollo personal, social, su autonomía y su integración social.

Este servicio ofrece, con carácter temporal o permanente, una atención individualizada e integral durante el período diurno a las personas con enfermedad mental crónica, con el objetivo de mejorar o mantener su nivel de autonomía personal, compensar sus limitaciones funcionales y dar apoyo a sus cuidadores y cuidadoras habituales, mediante prestaciones preventivas, habilitadoras y asistenciales orientadas a la capacitación y al desarrollo de competencias para la autonomía personal y para la participación en el entorno comunitario.

AGISAS impugna y solicita la nulidad de determinados extremos del PPT. El Departamento de Políticas Sociales solicita la desestimación del recurso y las dos licitadoras presentadas no han formulado alegaciones.

QUINTO.- La primera pretensión del recurso es que se declare la nulidad del apartado XI del PPT, referente a la formación del personal, y se establezca la acreditación de la experiencia mínima de tres años en el ámbito de la Salud



1224/2009 Errege Dekretuak, lan esperientziaren bidez eskuratutako lanbide kompetentziak onartzeari buruzkoak, dioenaren arabera.

Errekurtsogileak aipatzen duen gutxieneko esperientzia ikastetxeko arduradunari buruzkoa da soilik, eta baldintza hauek eskatzen dizkio PTAREN XI. atalak:

“Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu kontratatzen den jardueraren koordinazioaren berezko zereginak eta Gizarte Politiketako Departamentuarekin izango dituen harremanak, eta horretarako gutxienez izan beharko duen titulazioa izango da 1) Medikuntzako gradua/lizentziatura, psikiatrian espezializatua, edo Psikologiako gradua/lizentziatura edo 2) Medikuntzako, Erizaintzako edo Gizarte Laneko gradua/lizentziatura, eta gutxienez ondoren aipatzen diren ezaugarrietako bat izatea:

- Adimen-osasuneko graduondokoa edo masterra egina izatea.

- Adimen-osasunaren alorrean, gutxienez, 3 urteko esperientzia egiaztatzea.

Halaber, koordinazio lanetarako proposatutako pertsonak egiaztatu beharko du Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko euskarako C1 maila.

Ondorio horietarako, titulu baliozkotzat joko dira soilik unibertsitateek, administrazioek eta erakunde publikoek, lanbide-elkargoek, merkataritza-ganberek eta enplegu-zerbitzu publikoetan prestakuntza-zentro eta -erakunde gisa erregistratutako zentroek (besteak beste, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak) emandakoak edo homologatutakoak.

Gutxieneko esperientziari dagokionez, honako hauen bidez egiaztatuko da:

Soldatapeko langileen kasuan:

Mental en los términos que establece el Real Decreto 1224/2009, de 17 de julio, de reconocimiento de las competencias profesionales adquiridas por experiencia laboral.

La experiencia mínima a la que alude la recurrente va referida únicamente a la persona responsable del centro, a la que el apartado XI del PPT exige los siguientes requisitos:

“La persona responsable del centro, que asumirá las funciones propias de coordinación de la actividad que se contrata y de relación con el Departamento de Políticas Sociales, requerirá de una titulación mínima de o bien 1) Grado/Licenciatura en Medicina especialidad en Psiquiatría, o Grado/Licenciatura en Psicología, o bien 2) Grado/Licenciatura en Medicina, Enfermería o Trabajo Social que además cuente con al menos una de las 2 siguientes características:

-Estar en posesión de un Postgrado o Master en el ámbito de la Salud mental.

-Acreditar una experiencia mínima de 3 años en el ámbito de la Salud mental.

Asimismo, dicha persona responsable deberá acreditar el nivel de Euskara C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

A los efectos de acreditar la formación en materia de salud mental, únicamente serán considerados como títulos válidos los expedidos u homologados por Universidades, Administraciones y organismos públicos, Colegios profesionales, Cámaras de Comercio y centros registrados como Centros y Entidades de Formación en los servicios públicos de empleo (entre otros, Lanbide-Servicio Vasco de Empleo).

En cuanto a la experiencia mínima, será objeto de acreditación a través de:

En el caso de personas trabajadoras asalariadas:



- Afiliatuta dauden Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren edo Mutualitatearen ziurtagiria, enpresa, lanbide-kategoria (kotizazio-taldea) eta kontratazio-aldia (lan-bizitzaren txostena) jasotzen dituena.

- Lan-kontratuaren kopia edo enpresaren ziurtagiria, hori ziurtatzen duen antolakundeko arduradunak sinatua eta zigilatua, kontratuaren iraupena, dedikazio-ehunekoa, lanbide-kategoria eta egindako eginkizunak zehaztuta.

Langile autonomoen edo norberaren konturako langileen kasuan:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren dagokion araubide berezian alta emanda egondako aldiei buruzkoa, ofizioz egiaztatzeko baimenik eman ez badu.

- Egiaztatu beharreko konpetentzia-atalekin lotutako sektorean egindako jardueraren deskribapena eta jarduera egin den denbora-tartea, iraupena, dedikazio-ehunekoa, lanbide-kategoria eta egindako funtzioak zehaztuta”.

Beraz, zentroko arduradunak Medikuntzako gradu/lizentziatura bat (Psikiatriako espezialitatea) edo Psikologiako gradu/lizentziatura badu, ez zaio eskatzen prestakuntzako eskakizun gehigarririk, ez eta aurretiazko gutxieneko esperientziarik ere. Prestakuntzako eskaera gehigarriak eta alde zuzeneko gutxieneko esperientzia bakarrik eskatuko dira izangaiak Medikuntzako gradu/lizentziatura bat badu Psikiatriako espezialitate gabe, edo Erizaintzako edo Gizarte Laneko gradu/lizentziatura bat badu.

Hala ere, eginkizun hori betetzeko, unibertitate

-Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social o de la Mutualidad en la que estuvieran afiliados, donde conste la empresa, la categoría profesional (grupo de cotización) y el periodo de contratación (Informe de Vida Laboral).

-Copia del contrato de trabajo o certificado de la empresa firmado y sellado por el responsable de la organización que lo certifique, especificándose la duración del contrato, el porcentaje de dedicación, la categoría profesional y las funciones desempeñadas.

En el caso de personas trabajadoras autónomas o por cuenta propia:

-Certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social de los periodos de alta en la Seguridad Social en el régimen especial correspondiente, en el caso de no haber autorizado su comprobación de oficio.

-Descripción de la actividad desarrollada en el sector relacionada con las unidades de competencia a acreditar e intervalo de tiempo en el que se ha realizado la misma, especificándose la duración, el porcentaje de dedicación, la categoría profesional y las funciones desempeñadas”.

Por lo tanto, si la persona que vaya a desempeñar la función de responsable del centro tiene un Grado/Licenciatura en Medicina especialidad en Psiquiatría, o un Grado/Licenciatura en Psicología, no se le piden requisitos adicionales de formación ni una experiencia mínima previa. Los requisitos adicionales de formación y la experiencia mínima previa solamente son exigibles si el candidato tiene un Grado/Licenciatura en Medicina sin la especialidad de Psiquiatría, o un Grado/Licenciatura en Enfermería o en Trabajo Social.

Ahora bien, para desempeñar esta función se



titulu bat eduki behar da beti, eta, beraz, ez da aplikatzekoa uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretua, zeinak aipatzen baitu lanbide heziketa soilik.

Ondorioz, aurkaratzeko lehen arrazoi hori ezetsi egin behar da.

SEIGARRENA.- Bigarrenik, errekurtsogileak eskatzen du PTaren VI. atalean aipatzen diren hiru arreta arlo espezifikoek deuseztasuna deklaratzeko, eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen Zorroari buruzkoak, I. eranskinaren 2.2.1 fitxan definitutako prestazioak ezartzeko (gizarte zerbitzuak, osagarriak, osasunekoak).

PTaren VI. atala, ondoren jasotzen dena, Foru Aldundiak kontratatu nahi dituen zerbitzuen helburuak definitzera mugatzen da, eta, jakina, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren I. eranskinaren 2.2.1 fitxan adierazitako helburuekin bat dator:

“Zerbitzu hauen helburu orokorra errehabilitazio psikosozialerako programa indibidualizatuak eskaintzea da, artatzen diren pertsonen komunitatean mugitu eta beren gizarte-ingurunean ahalik eta modu aktibo eta autonomoenean aritzeko behar dituzten trebetasunak ikasi, berreskuratu edota mantentze aldera.

Zerbitzuen helburu espezifikoak hiru arreta-eremu espezifikotan multzokatzen dira:

- Errehabilitazio psikosoziala: Trebetasunak eta gaitasunak entrenatu eta berreskuratzeko jardueren bidez, pertsona horiei laguntza emateko beren autonomia eta bizitza pertsonal eta sozialeko eremu ezberdinetan beren funtzionamendu-maila hobetzeko xedez, betiere pertsona horiek komunitatean integratzea ahalbidetuz eta horretarako laguntza eskainiz, eta gizarte-eginkizun normalizatuak bete ditzatela

requiere en todo caso la posesión de un título universitario, por lo que no es de aplicación el Real Decreto 1224/2009, de 17 de julio, el cual se refiere exclusivamente a la formación profesional.

En consecuencia, debe desestimarse este primer motivo de impugnación.

SEXTO.- En segundo lugar, la recurrente solicita que se declare la nulidad de las tres áreas específicas de atención a las que se refiere el apartado VI del PPT, y se establezcan las diferentes prestaciones (de servicios sociales, complementarias, de salud) definidas en la ficha 2.2.1 del anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

El apartado VI del PPT, que a continuación se reproduce, se limita a definir los objetivos de los servicios que la Diputación Foral se propone contratar, y lo hace en términos que, como no puede ser de otra manera, están en línea con los objetivos señalados en la ficha 2.2.1 del anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre:

“El objetivo general de estos servicios es el de ofrecer programas individualizados de rehabilitación psicosocial que permitan a las personas atendidas aprender, recuperar o mantener aquellas habilidades que necesitan para desenvolverse normalmente en la comunidad y funcionar lo más activa y autónomamente en su medio social.

Los objetivos específicos de los servicios se agrupan en tres áreas específicas de atención:

-Rehabilitación Psicosocial: Mediante actividades de entrenamiento y recuperación de habilidades y capacidades para ayudar a estas personas a mejorar su autonomía y nivel de funcionamiento en las distintas áreas de la vida personal y social, orientándose siempre a favorecer y apoyar su integración en su entorno comunitario y potenciando el desempeño de roles sociales normalizados. Se trabajará apoyándose en el uso



bultzatuz. Horretan lan egiteko, gizartean nahiz komunitatean dauden baliabideak erabili eta lagungarri diren gizarte-sareak garatuko dira.

- Familiei laguntza eta komunitatearen sostengua ematea: Familiei informazioa, aholkularitza eta laguntza eskainiko zaie, ingurunean aritzeko eta elkarbizitzarako beren gaitasuna hobetzeko xedez.

- Laguntza eta euskarri soziala: Gizartean parte hartzeko eta harremanak izateko jarduerak mantentzen direla ziurtatzera bideratutako arreta eskainiko da, modu horretan, narriadura, isolamendua eta gizarte-bazterkeria ekiditeko.

Esku-hartze horiek guztiak bakarkakoak nahiz taldeka garatzekoak izan daitezke, eta zentroan, komunitatean edo erabiltzailearen etxean bertan egin ahal izango dira, normalizazioaren printzipioa kontuan hartuz, gizartean eta komunitatean dauden baliabideen eta komunitateko gizarte-sareen erabilera hobetsiz, betiere Erreferentziazko Osasun Mentaleko Zentroarekin koordinatuta.

Eman beharreko zerbitzuak II. eranskinean jasotzen den zerbitzuen zerrendan zehazten dira.

Halaber, prozesu gakoetarako ezarritako zehaztapenak eta jardun egokiak nahiz III. eranskinean zerrendatzen diren jardute-eremuak bete egin beharko dira, Gaixotasun Mental Larria duten pertsonentzako eguneko zentroaren zerbitzu batean aplikagarri diren heinean”.

Zentroan eman beharreko zerbitzuak definitzean, PTAREN II. eranskinak ez ditu hitzez hitz kopiatzen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren I. eranskinaren 2.2.1 fitxan aurreikusitako prestazioak, eta, antza, errekurtsogileak hori nahi du. Kontratistak eman beharreko zerbitzuen deskribapena ez da, eta ez du zertan izan, dekretuaren hitzez hitzeko kopia. Nolanahi ere, hertsiki bat dator aipatutako fitxan eta dekretuaren III. eranskinean jasotako prestazioekin, eta fidelki erantzuten dio gaixotasun mental kronikoa duten

de recursos socio comunitarios y el desarrollo de redes sociales de apoyo.

-Apoyo a las familias y soporte comunitario: Se ofrecerá a las familias información, asesoramiento y apoyo con el fin de mejorar su capacidad de manejo y convivencia.

-Apoyo y soporte social: Se ofrecerá una atención orientada a asegurar el mantenimiento de actividades de participación y relación social para evitar el deterioro, aislamiento y marginación social.

Todas estas intervenciones podrán ser tanto individuales como grupales y podrán realizarse tanto en el propio centro como en comunidad o en el domicilio de la persona usuaria, optimizando de acuerdo al principio de normalización el uso de recursos socio comunitarios y las redes sociales comunitarias y siempre en coordinación con los Centros de Salud Mental de Referencia.

Los servicios a prestar son los que se definen en la relación de servicios recogida en el Anexo II.

Asimismo, se deberán observar las especificaciones y buenas prácticas establecidas para los procesos clave y las áreas de actuación que se enumeran en el Anexo III, en la medida que sean aplicables a un servicio de centro de día para personas con Trastorno Mental Severo”.

Al definir los servicios a prestar en el centro el Anexo II del PPT no se limita a copiar literalmente, que es lo que la recurrente parece pretender, las prestaciones previstas en la ficha 2.2.1 del anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre. La descripción de servicios a prestar por el contratista no es, ni tiene por qué ser, copia literal del decreto. En todo caso, guarda estricta correspondencia con las prestaciones recogidas en la citada ficha y en el anexo III del propio decreto, y responde fielmente a la caracterización legal de



personentzako eguneko zentroko zerbitzuaren legezko ezaugarriei.

Izan ere, prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretua behin eta berriz aipatzen da pleguetan, eta administrazio klausula partikularren agirian (AKPA) ezaugarrien koadroko 28. atalaren arabera, kontratuaren araubide juridikoaren barruan dago.

Beraz, ezin da inola ere deklaratu PTAREN atal hori deuseza denik.

ZAZPIGARRENA.- Hirugarrenik, PTAREN XI. atalaren deuseztasuna deklaratzeko eskatzen du errekurtsoak, zuzenbidearekin bat ez datorrelako, eta berriz idazteko, prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko Dekretuaren I. eranskinaren 2.2.1 fitxan ezarritako prestazio guzti-guztiak gauzatzeko unibertsitate tituluak, lanbide heziketako tituluak eta lanbide kualifikazio kompetenteak finkatuta.

AKPAren XII. eranskinak zehazten ditu kontratua gauzatzeko behar diren langileak eta kategoria bakoitzaren gutxieneko dedikazio orduak zentroa irekita dagoen denboran (lanegunak astelehenetik ostiralera), lizitatzailerik dedikazio handiagoa eskaintzeko aukera aparte utzi gabe:

- Errehabilitazio psikosozialeko monitorea: 16 ordu egunean, 3.952 ordu urtean.

- Terapeuta okupazionala: 3 ordu egunean, 741 ordu urtean.

- Psikologoa: 2 ordu egunean, 494 ordu urtean.

- Gizarte langilea: 1,5 ordu egunean, 371 ordu urtean.

- Zentroko arduraduna: 1 ordu egunean, 247 ordu urtean.

Bestalde, PTAREN XI. apartatuak honela dio:

un servicio de centro de día para personas con enfermedad mental crónica.

No en vano el Decreto de cartera de prestaciones y servicios es reiteradamente citado en los pliegos y, según el apartado 28 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP), forma parte del régimen jurídico del contrato.

Por tanto, en modo alguno cabe declarar la nulidad de este apartado del PPT.

SÉPTIMO.- En tercer lugar, el recurso pide que se declare la nulidad del apartado XI del PPT por no ajustarse a derecho, y que sea redactado de nuevo fijando los títulos universitarios, los títulos de formación profesional y las cualificaciones profesionales competentes para la ejecución de todas y cada una de las prestaciones que se establecen en la ficha 2.2.1 del anexo I del Decreto de cartera de prestaciones y servicios.

Es el anexo XII del PCAP el que determina el personal necesario para ejecutar el contrato y las horas mínimas de dedicación de cada categoría durante el tiempo de apertura del centro (días laborables de lunes a viernes), sin perjuicio de que los licitadores puedan ofertar una dedicación superior:

-Monitor/a de rehabilitación psicosocial: 16 horas diarias, 3.952 horas anuales.

-Terapeuta ocupacional: 3 horas diarias, 741 anuales.

-Psicólogo/a: 2 horas diarias, 494 anuales.

-Trabajador/a social: 1,5 horas diarias, 371 anuales.

-Responsable de centro: 1 hora diaria, 247 anuales.

Por su parte, el apartado XI del PPT dispone lo siguiente:



Langile guztiek II. puntuari zehazten diren zerbitzuak behar bezala eman ahal izateko beharrezkoa den prestakuntza izan beharko dute.

“Todo el personal deberá tener la titulación y formación necesarias para poder prestar de una forma adecuada los servicios detallados en la cláusula II.

Teknikariek betetzen duten postu bakoitzari dagokion titulazioa (gradua) bete beharko dute.

El personal técnico deberá contar con la titulación (grado) correspondiente al puesto desempeñado.

*Subrogazio eskubidea duen pertsonala ordezkatzeko eta Baldintza Administratibo Berezien XII Eranskinean eskatzen den gutxieneko dotaziori aurre egiteko (edo eskaintzari, altuagoa balitz), beharrezkoak diren **monitoreek**, gutxienez, XII Eranskinean aipatzen diren funtzioak betetzeko titulazioa behar dute izan. Aipatu titulazio hori, besteak beste, ondorengo izango da: Gizarte Heziketan Gradua/Lizenziatura edo **Integrazio Sozialeko Goi zikloa**.*

*El **personal monitor** necesario para la sustitución del personal subrogable y para completar la dotación mínima fijada en el Anexo XII del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (o la oferta, si ésta fuera superior), deberá contar con la titulación que le permita el desempeño, como mínimo, de las funciones señaladas en ese mismo Anexo XII. Dicha titulación, entre otras, podrá ser la de Grado de Educación Social o **Ciclo Superior en Integración Social**.*

Subrogazioa legezko betebeharra baita, egingo diren ordezkapen guztiak eta, hala badagokio, langile berri guztiak kontratatzeke, aurreko paragrafoetan eskatutako betekizun guztiak bete beharko ditu kontratistak”.

Dada la existencia de obligación legal de subrogación, todas las sustituciones y, en su caso, contrataciones de nuevo personal, deberán realizarse de acuerdo con los requisitos establecidos en los párrafos anteriores”.

Kontratazio organoari dagokio kontratuaren bidez bete nahi diren beharrezkoak asetzeko behar diren langileak zehaztea, baina, 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 78.3 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzari dagokio Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa aplikatzeko beharrezkoak diren lanbide jarduerak egiteko lanbide kualifikazio egokiak zehaztea.

Al órgano de contratación le corresponde determinar el personal necesario para satisfacer las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato, pero, tal como establece el artículo 78.3 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, la determinación de las cualificaciones profesionales idóneas para el ejercicio de las actividades profesionales necesarias para la aplicación del Catálogo de Prestaciones y Servicios corresponde al Gobierno Vasco.

Beraz, deuseztasun arrazoi hori ere ezetsi egin behar da.

Por consiguiente, este motivo de nulidad también ha de ser desestimado.

ZORTZIGARRENA.- Azkenik, errekurtsoan eskatzen da, subsidiarioki, aitortu dadila Gizarte Integrazioko tituludunek eskubidea dutela diziplina anitzeko talde teknikoan parte hartzeko, beren lanbide kualifikazioagatik, eta alda dadila PTAREN XI. atala, tituludun horiek lanbide profil

OCTAVO.- Por último, el recurso solicita, subsidiariamente, que se declare el derecho de los titulados en Integración Social a formar parte del equipo técnico multidisciplinar por razón de su cualificación profesional, y se modifique el apartado XI del PPT al objeto de incluir a estos



gisa talde horretan sartzeko, dagozkien lanbide funtzioak esleituz.

Ikusi berri dugun bezala, BPTAren XI. atalean berariaz aipatzen da Gizarte Integrazioko Goi Mailako Zikloaren titulazioa, begirale eginkizunak betetzea ahalbidetzen dutenen artean, bai subrogatu daitezkeen langileen ordez, bai AKPAren XII. eranskinean finkatutako gutxieneko zuzkidura osatzeko, edo adjudikaziodunaren eskaintzan finkatutakoa baino handiagoa izanez gero.

BEDERATZIGARRENA.- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileari isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

Ezestea AGISAS GIPUZKOAKO GIZARTE INTEGRATZAILEEN ETA ANIMATZAILE SOZIOKULTURALEN ELKARTEAK kontratazioaren alorrean jarritako errekurtso berezia.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

titulados en dicho equipo como perfil profesional, asignándoles las funciones profesionales que correspondan.

Como acabamos de ver, el apartado XI del PPT menciona expresamente la titulación del Ciclo Superior en Integración Social entre aquéllas que permiten acceder al desempeño de las funciones de monitor, bien en sustitución del personal subrogable, o bien para completar la dotación mínima fijada en el anexo XII del PCAP, o en la oferta del adjudicatario si ésta fuera superior.

NOVENO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE INTEGRADORES SOCIALES Y ANIMADORES SOCIOCULTURALES (AGISAS).

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko maiatzaren 7a / San Sebastián, 7 de mayo de 2021.